

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Iruñeko Ganbera Abesbatzak eta Óscar Candenco organo-jotzaileak 'Agur Jesusen ama' kontzertua aurkeztuko dute Tafallan, Felipe Gorriti musikari nafarraren piezekin

*Larunbat honetan, hilak 15, izango da Santa Maria elizan, Nafarroako Gobernuak antolatutako Organorako XXVIII. Musika Zikloaren barnean*

Jueves, 13 de septiembre de 2012

Organorako XXVIII. Musika Zikloak larunbat honetarako, iralak 15, kontzertu bat programatu du Tafallan. David Guindano-k zuzendutako Iruñeko Ganbera Abesbatzak parte hartuko du bertan Óscar Candenco organo-jotzailearekin batera. "[Agur, Jesusen Ama](#)" programa interpretatuko dute, Felipe Gorriti konpositore nafarraren obren aukeraketa bat. Emanaldia Tafallako Santa Maria elizan izango da (musikaria bertan organo-jotzaile izan zen) 20:30ean eta doan.

**Felipe Gorriti** (Uharte-Arakil, 1839-1896) Espainiako organo erromantikoaren izar aipagarrienetako bat izan zen. Iruñean eta Tolosan ikasi zuen eta 1856an inauguratu berri zen organo-eskolan matrikulatu zen Madrilgo Errege Kontserbatorioan; han bertan ere konposizioa ikasi zuen Eslavarekin. 1850ean organo-jotzaile sartu zen Tafallan, eta 1867an Kaperako Maisu eta Tolosako Santa Mariako organo-jotzaile postua lortu zuen. Katalogo zabala du, eta bertatik *Misa en Do* o *el Gran Miserere* nabarmendu ditzakegu, *organorako bertso*-bilduma ezberdinez gain.

**Óscar Candendo Zabala** (Donostia) Goi Irakasle da Organo, Piano, Klabezin eta Ganbera Musikan. Musika-ikasketak Baiona eta Pabeko kontserbatorioetan egin ditu, Frantziako Tolosako *Ecole d'Etudes Musicales Superieures* eskolan, Bartzelonan eta Stuttgart-eko *Staatliche Hochschule für Musik und Darstellende Kunst* eskolan.

Europako hainbat hiritan emanaldiak eskaini ditu (Salzburgo, Bordele edo Lisboa) eta lehiaketetan parte hartu du: *Granadako Nazioarteko Musika eta Dantza Jaialdian*, *Donostiako Musika Hamabostaldian* edo "*Catedral de León*" *Nazioarteko Organo Jaialdian*.

Kontzertu honetarako **Ganberako Abesbatza** osatzen dutenak honako hauek dira:

Sopranoak: Beatriz Lorente (sokaburua); María José Gonzalez; Silvia Osés; Pilar del Valle de Lersundi; Amaia Sáez; eta Asun Doiz.

Kontraltoak: Raquel Baztán, Andrea Etxabarren, Laura Álvarez eta Paki Olmo.

Tenoreak: Javier Casalí (sokaburua), Íñigo Casalí (zuzendariordea), Andoni Arcilla eta Luis Rodriguez.

Bassus: Juan López Tabar (atalburua), Aritz Azparren, Silvano Baztán, Javier Iribarren, Juan Gallego eta Julián Irulegui.

Aurrez, eta Felipe Gorriti ospetsuaren inguruan ere, Organo Zikloak ostiral honetarako, hilak 14, mahai-inguru bat programatu du, eta bertan parte hartuko dute: Berta Moreno musikologoak, Oscar Candendo organo-jotzaileak, Jon Magües musikologoak eta David Guindano Ganberako Abesbatzaren zuzendariak. 12:00etan izango da Nafarroako Musikako Goi Mailako Kontserbatorioan eta sarrera doakoa da.